

GASTEIZKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO ZUZENDARITZA TALDEAREN KONPROMISOA KALITATEAREN KUDEAKETAREKIKO

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako oraingo Zuzendaritza Taldeak Zentroaren kalitatearen kudeaketa hobetzeko pausoak progresiboki ematea erabaki du, Errektoretza Taldearen hezkuntza arloan erreferentea den EFMQ¹ eredu europarrean sartzeko politikari jarraituz.

Bai titulazioen ebaluazioa, bai haien nahitaezko egiaztapena Goi Hezkuntzako Espazio Europarrean (GHEE) haien homologazioa posible egiteko, Zentroko Zuzendaritzak datuen, adierazleen eta, prozesu antolatzaileen aldizkako analisia egin behar du, oraingo egoera eta planteatutako objektiboetan oinarrituta jarraitutako eboluzioa jakinarazteko, azkenik erabaki estrategikoak hartu ahal izateko.

Gogoratu beharra dago "GHEEen Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Arauak" izeneko esparrudokumentuan, ENQA-k² "instituzioak haien ikasketa planen eta beste ekintzen kudeaketa eraginkorra lortzeko informazio egokia biltzen, aztertzen eta erabiltzen duten bermatu behar dutela" xedatzen duela, "instituzio batek bere burua ezagutzea kalitatearen bermatze eraginkorra lortzeko abiapuntua delako".

Printzipio hauetan oinarrituta, UPV/EHUko Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Zuzendaritza Taldeak ikasleengan zentratutako kalitatearen kudeaketarekiko konpromisoa adierazten du, eta horretarako, eskolako pertsonalaren (irakasleak eta AZP) parte-hartzea ezinbestekoa izango da.

Hortaz, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Zuzendaritza Taldeak, zentroan kalitatea progresiboki hobetzeko beharrezko diren pausuak betetzeko asmoa adierazten du, hurrengo irizpideen arabera:

- Ikasleentzako eta gizartearentzako orientazioa. Hauek dira zerbitzuaren kalitatearen azken epaileak, oraingo eta etorkizuneko heziketa beharrekiko orientazio argia behar dutenak.
- Pertsonen garapena eta parte-hartzea, hezitzen eta ahalmena ematen, eta Eskola hobetzeko, sormena eta ideien ekarpena suspertzen.
- Zuzendaritza Taldearen konpromiso aktibo eta etengabea kalitate objektiboen lorpenarentzako euskarri gisa.
- Ikaskuntza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza.
- Zentroaren Zerbitzu Gutunaren Definizioa.
- Plangintza estrategikoa
- Prozesuen bidezko kudeaketa, nahi den emaitza modu eraginkorrean lortzen delako ekintzak eta baliabideak prozesu gisa kudeatzen direnean.
- Ekintza eta datuetan oinarritutako kudeaketa. Honetan, planifikatutako hobekuntzak informazio fidagarrian oinarrituta hartzen dira, ikasleen eta pertsonalaren pertzepzioak ere kontuan hartuz.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 4a

¹ European Foundation for Quality Management.

² European Association for Quality Assurance in Higher Education.